

Ilazki Irizar Aramburu

D maila • 3 saria

Kaixo, Ilazki naiz, Amamaren herentzia-ren idazlea. 13 urte ditut, eta txikitatik gustatu izan zait irakurtzea. Imaginazio handia izan dut beti, baina ez naiz ausartu asmatzen nituen istorioak idazten, beti erdi-bidean uzten baintuen. Amamaren herentzia-rarte. Ipuin motz bat zenez, ez dit denborarik eman amaitu baino lehen gelditzeko. Esan beharrekoa esanda, nire ipuina irakurtzera gonbidatzen zaituztet! Espero dut gustatzea.



AMAMAREN HERENTZIA

Bazen behin, trumoiez beldurturik izara azpian zegoen neskata bat. Gau hartako ekaitza inoiz entzun zuen zaratatsuenetako bat zen, eta amama ez zegoen beso artean hartu eta mantzanilla batekin lurrian etzanda margotzeko. Amamarekin zegoenean ez zuen beldurrik, berak babestuko zuela esan ohi zion-eta. Baina, bakarrik zegoen.

Trumoiek ohe azpiko munstroen orroak ziruditen; leihoetako kortinetan, tximistek amets gaiztoenetan ere ikusiko ez zituen hortz zorrotzeko piztiak marrazten zituzten, haize ufaden laguntzaz. Zinez izututa zegoen.

Ohe azpiko munstroak baretzean, eta leihoan dantzari zebiltzan piztiak lasaitzean, atera zen izara azpitik neskata. Lasai zegoen logela, zaratarik ez; ilargiaren itzal argia nagusi. Ausardia kolpe batean, leihora joan zen ekaitzaren amaiera egiaztatzeko asmoz. Zerura begiratu zuen; garbi-garbi zegoen, bare-bare, baina... Zerbait desberdina somatu zuen. Zerua beti moduan, urdin-beltzez jantzita zegoen laino arin batzuk lagun, baina... zerbait falta zen. Ez zen oso zaila izan asmatzea, nabarmena baitzen: izarrak falta ziren. Ez zegoen izar bat bera ere; zerua haien partez borobil handi distiratsu batek dotoretzen zuen, gertu zeuden lainoak marrazki argi bilakatu.

Ederra zen borobil zuria. Orain gauero igotzen zen zerura, eta aste betean ez zuen neskatak horren maite zituen izarren berririk izan, eta susmagarria egiten hasi zitzaion.

"Non ote daude izarrak?"--galdetzen zion bere buruari.

Larunbat goizean, gosaltzen ari ziren bitartean, amari aste osoan zehar barruan bueltaka izan zuen galdera bota zion.

– Ama. – deitu zion, agian entzungo ez zuen tonu batean, baina sukaldeko isiltasunak salatu egin zuen.

PROSA

- Esan, bihotza. - erantzun zion amak gailetak mahai gainean uzten ari zela goxo.
- Zergatik desagertzen dira gauzak?. Eta desagertzean zer gertatzen zaie?-- galdetu zuen, amari so.
- Ba... bueno, batzuetan, galdu egiten dira... Beste batzuetan, lapurtu egiten dituzte. Baina... desagertu, inoiz ez dira guztiz desagertzen.
- Eeee? Nola ezetz?-- itaundu zuen, berriz ere, ahoa bete hortzekin (edo bueno, kasu honetan Gaileta Maria birrinduekin).
- Bai ba, laztana. Adibidez... Plater bat lapurtzen edo galtzen denean. Ez dakizu non dagoen, baina nahiz eta lapurtuta, edota galduta egon, munduan nonbaiten jarraitzen du, ezta?
- Bai, agian bai...- xuxurlatu zuen neskatzak, mahai gainean zuen Cola-caio ilunari goilaretxoarekin bira-aparrak sortzen zizkion bitartean.

Goiz guztian etxea lasai-lasai mantendu zen, isiltasunaren mende. Neskatiak ez zuen oso gustuko isiltasuna, nahiago zuen amamak bere barre-argara eta kantu alaiekin isiltasun hura leuntzeko zuen modua. Isiltasunaren xendan, inkontzienteki, amamaren gelara gerturatzen joan zen, ate parean geratu arte. Atea guztiz irekita zegoen, barruan zegoen guztia ikusgai ere. Ez zen ezer aldatu azken aldiz han egon zenetik; beti izan da gela berezia.

Amak ez zuen batere gustuko bere alaba zintzoa bere ama bezalako emakume "desberdin" batekin zuen harreman estua; hainbeste ordu igarotzea solas eta barre, etxeko beharrak ahaztuz. Amama, ordea, menderakaitza suertatu zitzaion amari eta etxean ez zegoen bakoitzean...zas! Amamaren gelan bukatzen zuen alabak jostari.

Gauza mordoxka zeuden gelako lurrean, eta guztia, jada, hautsez beteta zegoen. Ingurura begiratzuz, ohe alboan aurkitu zuen egur argiz eginiko astotxoa. Harekin batera; zuri zeuden mihise pare bat, koloretako pintura potetxo lehorrak eta harez estaliriko tamaina guztietako pintzelak. Oinak mendera ezinik, aurrerantz ibiltzen hasi zen, hotz-ikara beldurgarriei aurre eginez. Egurrezko idazmahai zahar batekin topatu zen. Mahaigaina behatzen hasi eta interesgarria iruditu zitzaion zerbaitekin topatu zen: karpeta urdin bat. Erdi-erdian, urre koloreko tinta distiratsuz, eskuz idatzirik, hizki txukun haietan irakurri zuen lehen aldiz bere izena. Esku artean hartu zuen, baina irekitzeaz zegoela, urrats pisutsu batzuk entzun zituen gertu. Buelta erdia eman, eta hanka puntetan korrika, azkar eta isil aldi berean ihes egiten saiatu zen.

Atearen markoa gurutzatu bezain laster, ikusi zuen bere ama metro gutxitara. Azkar-azkar gorde zuen karpeta bizkar atzean.

-Eh...?-- hasieran amak ezustea zuen marraztua aurpegian, alaba bere gelan zegoela uste baitzuen; baina ikustean nondik irten zen, serio-serio jarri zen.- Zertan zabilta hor, laztana? Zer daramazu ezkutuan?

-Ba... Emm...- neskatzak urduritzen hasi zen; ahalik eta azkarren aitzakia onargarri bat asmanahian, burua estutzen hasi zen bere ekintzei argudio bat aurkitu arte. Segundoak luze, amak ez zuen gehiegi itxaron beharra izan alabaren erantzuna entzuteko:- Azkena hemen egon nintzela, marrazkien karpeta utzi nuen, eta jasotzera etorri naiz.- bota zuen, jada, bere buruaz seguru. Karpeta bizkar atzetik atera eta ozarkeriaz, urre koloreko hizkiak hatz erakuslearekin

seinalatu zituen. Amaren sinesgaiztasuna nabarmena zen, baina gaiari garrantzia kenduz, alabaren albotik igaro zen pasilloan desagertu arte. Neskatilek ama bistatik galdu bezain laster, korrika batean igo zituen eskailerak. Helburua? Logela.

Hogei bat minutu zeramatzan bere gelako alfonbran indiar moduan eserita zuzen-zuzen, aurrez aurre zegoen karpeta urdinari so. Bazekien momenturen batean jakingurak irabaziko ziola; azken finean, hura zen neskatilek zeukan amamaren azken izatea. Elkarrekin leihotik ikusten zituzten izarrak desagerturik zeuden, eta gainera, hori nahiko izango ez balitz bezala; azalak, distiratsu, bere izena zuen. Karpetak ia-ia oihuka eskatzen zion irekitzeko. Barruan gelditzen zitzaion pazientzia gutxia hartu, eta gaua iristean irekiko zuela erabaki zuen; orduan izar batzuk lagun izango zituen itxaropena piztu baitzitzaion.

Erori zen gaua leiho-barrenak ilunduz, eta gura izan arren, izarrak ez zituen lagun gau hark. Afal ondoren korrika batean igo zen gelara, amari pitzik ere esan gabe. Berriz ere posizio berean zegoen, baina orain, egoera aldatu zen; orain, gaua zen eta, duda izpirik gabe irekiko zuen karpeta. Pentsatu eta egin, zuhurtziari buelta askorik eman gabe karpeta hartu eta ireki egin zuen. Erraz ikusten zen zer zegoen barruan: paperak. Eskua sartu, paper guztiak batera helduta atera eta alfonbra gainean utzi zituen. Orriek sorrarazten zioten jakinminari aurre eginez, hizki distiratsuen gerizan ateratzea lortu ez zuen zerbait zegoela konturatu zen: gutun-azal bat.

Eskua dardarka zuela atera zuen gutun-azala karpetatik. Zalantza enbata bat bere gorputzaren jabe egitear zela, amamarekin etzanda, trumoiak uxatzeko marrazten zituen izarren irudia etorri zitzaion burura eta barruko papera atera zuen. Papela zabaldu eta orain bai, irakurtzen hasi zen irmo.

"Bilobatxo maitea:

Hau irakurtzen ari bazara, ziur nago ni hor ez nagoela, eta arrazoi horrexegatik idatzi dut hau. Badakit orain amarekin bakarrik zaudela; baita, ama ez dela oso maitekorra, baina ez zaude guztiz bakarrik. Badirudi urrun nagoela, baina lasai, pentsa baino gertuago nago. Bihotzean mina ematen dit ni joan ondoren zu ezin aske izatea.

Ez larritu, jada ni ez nagoelako. Ez nauzu ezinbesteko zure bizitzan, aurrera jarraitu behar duzu, baina, entzun adi! Aurrerantz jarraitzeak ez du esan nahi ahaztu behar nauzunik, ezta pentsatu ere, ahazten banauzu gauetan oinetatik tira egingo baitizut! Ni ez naiz guztiz joango memorian mantentzen banauzu. Ni ez naiz desagertuko; zure bihotzean biziko naiz.

Ez arduratu, edota triste jarri nire faltagatik; poztu zure ondoan egon naizen une guztiengatik. Zerutik zaindari izango nauzu.

Bihotz eta arimaz, Amama Ilargi."

PROSA

Irakurtzen amaitzerako, begiak malkoz beteta zituen. Eri-koskorrak begietatik pasa eta begiak lehortu zituen, goibel haren partez, irribarre txiki bat margotzeko aurpegian. Lurrean sakabanatutako paperei so egin zien. Bata bestearen atzetik, guztiak irakurri zituen: Marrazkiak, argazkiak, hizki-jokoak... Guztia han zegoen. Ez ziren paper soilak; amamaren memoria zatitxoak ziren.

Eskutitza irakurri ondoren, alfonbra ilunean sakabanatutako paperak irakurrita, dena ulertu zuen: Zerura begiratu, amama agurtu eta eskuak indarrez astindu zituen eri-koskorretan pausaturik zeutzan malkoak hegan has zitezen; amamaren ondoan izar distiratsu bilaka zitezen, gizaldiz-gizaldi izan den eta izango den eran.

Ersa